

MIGUEL DE UNAMUNO XXI. SARIA
BILBOKO UDALA



OGIA ETA ZIRKUA

IRATI JIMENEZ

erein

OGIA ETA ZIRKUA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Bilboko Udalak antolatu zuen Miguel de Unamuno XXI. Saiakera Lehiaketaren 2020ko deialdiaren euskarazko saria jaso du. Liburu hau Bilboko Udalak argitaratua izan da.

1. argitalpena: 2021eko irailean

Azalaren diseinua:
Xabier Gantzarain

Maketazioa:
Erein

© Irati Jimenez

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-769-3

L.G.: D 1064-2021



EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

OGIA ETA ZIRKUA
Literaturaren zeremonia magikoa
Harkaitz Canoren *Neguko zirkuan*

Irati Jimenez

Bilboko Udaleko Miguel de Unamuno XXI. Saria

AURKIBIDEA

Sarrera bat, gutun antzera idatzia	11
I. <i>Neguko zirkuaren</i> barruan dagoen liburua ulertzeko gako nagusiak	15
Sinbola: poesia modernoaren oinarri fundazionala	17
Idazle baten estiloak bere sinboloen aukeraketa markatzen du	18
Fase oparo baten azken lana eta gailurra	20
Liburu inportante bat kritikaren ustez, liburu intrigante bat	22
II. <i>Neguko zirkuaren</i> azterketa, ipuinez ipuin eta sinboloz sinbolo ...	27
Atarikoak: liburu honetako protagonista ez dago bizirik	
Lehen kapitulua, <i>Eskularruak mara-mara:</i> hutsik gaudenean egon gaitzke bizirik?	28
Lehen parteak: denboraldi bat Parisen	
Bigarren kapitulua, <i>Argentinaren lotsatia:</i> benetako aitaren faltak zauri bat utzi zigun	31
Hirugarren kapitulua, <i>Batere valsik gabe amaituko da narrazio hau ere:</i> lehiakortasunak gerra dakar eta gerrak, desastrea	36
Laugarren kapitulua, <i>Bueltako ogia:</i> literaturan lagunak egin nahi ditugu	47
Bosgarren kapitulua, <i>Elephant Terrible:</i> zirkuaren ez da poliziarik kabitzen	54
Seigarren kapitulua, <i>Jon Miranderaren balada Jim Morrisonen omenez:</i> maitasun historia kamuflatu bat	59
Zazpigarren kapitulua, <i>Ogiaren konkista:</i> ogia irabazi ezin duenak lapurtu egiten du	66
Zortzigarren kapitulua, <i>Aulkien Historiako une estelarrak:</i> bizitzan eroso egoteko zutik egoten ikasi behar da	71
Bederatzigarren kapitulua, <i>Houdiniren anaia:</i> zirkuaren zeremonia amesgaizto bihurtu daiteke	76
Hamargarren kapitulua, <i>Kare zurizko hormara itzuli:</i> eskua falta zaigunean, literaturak hirugarren belarri bat emango digu	79

Hamaikagarren kapitulua, <i>Bala bat patrikan:</i> miraria da gerratik bizirik ateratzea, baina lubakietan mirarizko adiskidetasunak egin daitezke.....	84
Bidean erdian gaude: etxera goaz!	
Hamabigarren kapitulua, <i>Literatura unibertsala eta ozeanoa:</i> erdintasunik eta anaitasunik gabe, literaturaren ontzia hondamendira kondenatuta dago.....	88
Bigarren partea: etxean gaude, baina bidaia ez da bukatu	
Hamahirugarren kapitulua, <i>Ez da ezer gertatzen:</i> transformazio beldurgarri baten atarian gaude, baina ez du zertan txarra izan	94
Hamalagarren kapitulua, <i>Raymond Carver Bilboko errebaletara heltzen:</i> literatura guztia geure barruan kabitzen da eta horrek garaiezin egiten gaitu	103
Hamabosgarren kapitulua, <i>Berlin monogatari:</i> hiri honetan ipuin-kontalari tradizional bat baino zerbait gehiago behar da.....	111
Hamaseigarren kapitulua, <i>Ez zaie errazegi jarri behar:</i> borroka batek merezi duenean, borroka hori egin behar da, eskubidea dugu.....	117
Hamazazpigarren kapitulua, <i>Oin hotsak goiko solairuan:</i> <i>Neguko zirkua</i> idazten ari den idazleari buruzko narrazioa.....	122
Hemezortzigarren kapitulua, <i>Zingiretan:</i> ze idazle mota izango garen erabakitzeko ze gizon mota izango garen erabaki behar dugu.....	129
Bukaera: idazlearen bidaia hasiera batekin bukatzen da	
Hemeretzigarren kapitulua, <i>Camarillo Brillo:</i> erantzun guztiak ditugu, camarada.....	136
III. Bukaera bat, gutun antzera idatzia.....	145
«Hiltzen ari den pertsonaren haluzinazio definitiboa, hori da literaturaren definizio bat»	147
Epaimahaiaren akta.....	173

Idazle baten literaturan edertasun miragarri bat
topatzen dugunean irakurleok zorretan geratzen gara.
Kitatu beharrean, liburu honek *Neguko zirkuarekin* eta
bere egilearekin neukan zorra handitu egin du.
Eta horregatik ere eskerrak eman nahi dizkiot
Harkaitz Canori, zirku honetako magoari.

Liburu hau Mikelentzat da, nire mirarrietan sinesteagatik.
Eta gure mirariak posible egiteagatik.

Sarrera bat, gutun antzera idatzia

Liburu hau gauz hasi zen eta duela hilabete batzuk ez neukan idazteko inolako asmorik. Bukatu berri nuen Harkaitz Canoren obrari buruzko lan mardul bat eta *Neguko zirkuari* buruz esateko nuen gauzarik inportanteena bertan esanda zegoen. Liburu monumentalala zela eta nire ustez Harkaitz Canoren osatuena, boteretsuena eta ederrena. Asmorik ez ezik, momentu hartan ez neukan liburu hau idazteko denborarik ere. Baina jazzak eta Julio Cortazarrek hainbatetan frogatu dutenez, denbora elastikoa da, eta esku artean duzue elastikotasun horren froga: nonbaitetik atera dut falta zitzaidan denbora. Beharbada falta nuen gogoa atera dudan leku beretik. Intentzio on guztiak desegiteko gaitasuna izan zuen pitzaduratik eta pitzadura horretatik etorri zen errebelaziotik.

Lo aurreko kontzientziaren bertigoetan errealtatearen mintza zabaldu egiten da. Hor agertzen da sarritan nobela bati hasiera emango dion irudi bat, hurrengo egunean ahaztu egingo duguna; inoiz filmatuko ez dugun gure maisulan zinematografikoa, hasieratik bukaerara, supersonikoa dirudien segundo bakar batean. Errebelazio laburrak izaten dira, normalean, eta ez dute askorako balio izaten, ez bada arimaren zabalera uste duguna baino abisalagoa dela frogatzeko. Arrakala ixten denean gu geu ere itxi egiten garela, hori da pitzadura zorabiagarrietan agertzen zaizkigun loriazko jauregiak instant batez ikusteagatik pagatu behar dugun prezioa. Gau hartako nire errebelazioa oso luzea izan zen. *Oso luzea. Neguko zirkuari* oinarritutako analisi literario bat zen, hasi eta buka.

Ohetik altxatu gabe idatzi nuen, ilunetan, telefonoaren oharrak erabilia eta nire bikotekidea esnatu gabe. Oraindik gogoan daukat bere gorputzaren epeltasuna. Tarteka, esnatuko nuela pentsatu nuen, baina lo jarraitu zuen, ordu bat, eta beste bat eta beste bat.

Esan dizuet errebelazio luzea izan zela.

Ez pentsa ez nuenik esnatzeko tentaldirik sentitu. Sentitu nuen baina ez nion tentaldiari amore eman nahi izan. Buruan zabaldutako arrakalatik zetorrena abiadan zetorren, eta nahia-go nuen zetorkidan guztia apuntatu.

Ikusi duzue inoiz irudi hori, ahatea eta untxia biak bere baitan dituen? Edo beste hori, edalontzi bat eta bi aurpegi erakusten dituen? Ba, *Neguko zirkuarekin* halako zerbait gertatzen ari zitzaidan, beti ikusitakoaz gain beste zerbait ari nintzen ikusten eta ezin nion idazteari utzi. Nahiz eta gorroto dudan telefonoaren teklatura.

Ez dakit nola lortu nuen lo egitea.

Esnatu nintzenean telefonoan hartutako oharrak begiratu eta zentzuzkoak iruditu zitzaizkidan; baina norbaiti kontatu behar nizkion, ahots goran entzun gabe ezin nuen benetan jakin anabasa hark inorentzako interesik izan zezakeenik. Zorionez –niretzako zorionez esan nahi dut– Harkaitz Canoren obra nik bezainbeste miresten duen norbaitekin bizi naiz edo, tira, beharbada ez nik bezainbeste –esku artean duzun analisi honek hartu duen tamaina ikusita–, baina bai asko. Abantaila hori aprobetxatu nuen eta gauean errebelatutakoa laburtzen saiatu nintzen.

Eta hamar edo hamabost minutu pasatu nituen beste liburu hori zein zen kontatzen. Orduan kontatu niona da, laburbilduz, zuen aurrean duzuen analisisia.

«Hau guztia», galdetu zidan, «idatzi duzu gaur gauean, ni lo nengoen bitartean... *telefonoan?*».

Ez dut hitz egin genuena lar ondo gogoratzen, baina nire telefono oharretan zegoen hipotesia arrazoitua iruditu

zitzaion. Agian inportanteagoa: nire hipotesia *interesatu* egin zitzaion. Bera izan da existitu behar ez zen liburu hau egitera animatu nauena eta berrirakurketaz berrirakurketa, berridazketaz berridazketa, honaino ailegatzen lagundu didana. Idazketa kontzientea maila gorenean dagoenean indar inkontzienteak libratzen direla kontatzera nator, narrazio liburu baten interpretazio sinboliko bat proposatzera eta literaturaren boterearen aurrean errenditzera.

Eta ez zait hori egiteko modu hoberik okurritzen goiz hartakoa baino. Sukaldean nengoen, kafe makinaren ondoan, pijama jantzita. Garunaren mintzak gehiegi igurtzi ondoren gorputzean gelditzen den elektrizitate urduri hori sentitzen nuen eta ez daukat argi zer esan nuen, baina honelako zerbait izango zen.

«Gaur gauean konturatu naiz *Neguko zirkuaren* baitan beste liburu bat dagoela».

Lorik apenas egin gabe ere suspertuta sentitzen nintzen, eta esna, etxeakoak lo dauden bitartean altxor sekretu bat aurkitu duen haurra bezala.

I

Neguko zirkuaren barruan dagoen liburua ulertzeko gako nagusiak

«Zirkua herrira datorrenean, mundua guztia enteratzen da, ezta?».

Cormac McCARTHY

«Pikutara dena, dena, zirkua izan ezik!... goibela bada, aspergarria, mugimendurik gabea, arriskurik gabea... pikutara bueltak barrura begira ematen dituen, zirkuluan sartzen ez den guztia, dibertitzen ez dena! Bere bihotza zirkuaren tentsioan, harriduran, beldurrean eta poztasunean jartzen ez duena, munduaren osotasunean, bizitzaren zabaleran».

E.E. CUMMINGS

Neguko zirkua ipuin liburuaren analisisa egitera goaz, zertaz doan kontatu nahi dugu, zertaz doan *sakonean*. Bere poetikotasunaren oinarrian dauden irudi sinbolikoak aztertuko ditugu, idazleak erabaki literario egokiak hartzen dituen agertzen diren indar inkontzienteen atzean dagoena ikusten saiatuko gara. Ipuin batetik bestera errepikatzen diren elementuei begiratuko diegu, elementu horiek gorde dezaketean esanahia ulertzeko eta autore honen zein beste batzuen testuatarako balio dezakeen **interpretazio tresna bat** eskaintzeko asmoz.

Neguko zirkua maisutasunez idatzitako ipuin liburu zirragarria da eta gure interpretazioak zirrara hori zabaldu nahi

luke, edertasunari zauri bat egin eta arrakalaren barruan begiratu. Argitaratu zenean, literatura kritikoez modu batera edo bestera seinalatu zuten moduan, **badago liburu honetan batasun bat, ipuinen arteko keinu txiki asko, zerbait**. Lurpeko igarobideetatik datorren oihartzun poetikoan nabigatuko dugu, mundu sinbolikoetan ibiliko gara eta bidaia horren bidez **Harkaitz Canoren literatura gidatu duten sakoneko korronteak azaleratzen saiatuko gara**.

Hogeita bost urtetik gorako ibilbide literarioan Canok literaturaren zokondo guztiak aprobeztatu ditu, era guztietako formatuen eta generoen bilatzaile agorrezina dela erakutsi du, letragile eta itzultzaile bikaina izan da, egin du lan sukaldariek, teatro lanak idatzi ditu, gidoilari aritu da telebistarako, sormenezko irrati literatura landu izan du; musikaren, komikigintzaren eta artearen territorioetatik hurbil ibili da beti, esploratzaile nekaezina izan da.

Ez da erraza izaten, baina bere ibilbidean zehar prestigio kritikoa irabazi du eta irakurle goaren plaza zabala eraiki du bere literaturaren bidez eta bere literaturarentzat. Esan daiteke kalitatea duen idazlea izateaz gain, idazle inportantea izatea aitortzen zaiola, bereziki bigarren Euskadi saria eman zion *Twist* (2011) arrakastatsuz geroztik. Beste askori gertatu zaien moduan, eleberrigintzan aitortu zaio bikaintasuna. Maisutasuna, oster, ipuingintzan erakutsi du. **Mekanismo tekniko perfektuak egiten ikasi du, badaki non dauden ipuinaren botereak eta nola konjurtzen diren bere akelarreak**. Euskararen territorio onirikoetara eraman gaitu, bere ipuingintzan entzun dugu, beste inon baino argiago, irratia pizten zela berriro, Ginebra Erreginararen dorretxean. Aztigintzaren jeinua ekarri digu, Sarrionandiarekin sentitu genuen liluraren hotzikara. Hark bezala ekarri du euria eta hark ezala atabala.

Ipuingintza hori baloratzeko balio dezakeen analisi bat egiten saiatu gara, *Neguko zirkuak* irakurle moduan ekarri digun zoriona transmititzen eta anplifikatzen. Nola planteatu

dugun, zergatik aukeratu dugun *Neguko zirkua* eta ez beste obra bat edo nola egon daitekeen liburu bat bestearen barruan, hori da jarraian argitzen saiatuko garena, sinbolo literarioetatik abiatuta.

Sinboloa: poesia modernoaren oinarri fundazionala

Esoterismoa dirudi, baina testu literario baten barruan, agerikoez gain beste esanahi batzuk sartuak daudela esatea moderno ere ez da. **Harkaitz Canoren mundu sinbolikoaren azterketa** da hemen proposatzen duguna eta sinbolismoaren inguruan ez da esan ezer, teorikoki behintzat, ez zuenik esan duela berrehun urte Edgar Allan Poeren ipuinetako haluzinazio espektralekin enamoraturako irakurle suhar batek, Charles Baudelaire izeneko jeinu poetiko kolosalak. Gauza errearen artean badirela **agerikoez haratagoko lotura sokinak** eta **poetikotasuna ezer ez dela, ez bada lotura horientzako irudiak bilatzea eta irudi horiek esperientzia sinestesikoen bidez adieraztea**, ikusmenaren, usaimenaren edo entzumenaren pertzepzioak nahasiz, haien arteko egokitasuna desafiatuz.

Sobrenaturalismoaren lurrinak ekarri zituen sinbolismoak poesia, giro metafisikoak, dekadentismoa, lilura hordigarriak, surrealismoaren atariko mundu onirikoak eta musikaltasun berri bat, neurriaren eta erritmoaren norabidea betiko aldatu zuen modernitate poetiko berri bat. Sinbolistak dira modernismoaren atek zabaltzen dituztenak, eta bertan bilatu behar dira XX. mendeko loraldi liriko ikusgarriaren lehen arbasoak ere. Artistaren baitan gorderik dauden territorio zentsuraezinak aldarrikatu zituen sinbolismoak, burgesiaren epaitegiek ezin makurrarazi zezakeen kontzientzia artistiko berri bat, **abangoardiaren aurreko lehen abangoardia**. Literatura nola izango

litzatekeen Baudelaire gabe ez dakigu. Kolosoentzat ilumina-
tutako jauregietan dago, printze bat izan zen poesiarentzat.

Gure literatura garaikidearen lehen zirraran bere oihar-
tzuna entzuten da; bide berriak zabaldu nahi izan zituenean,
Baudelaire eta sinbolistak estudiatu eta itzuli zituen Esteban
Urkiaga *Lauaxetak*. Berdin egin zuen gero Gabriel Arestik,
euskal literaturaren ateak zabaldu zizkigun mailu poetikoak.
Animalia eta paisaia sinbolikoetan oinarritu zuen Arestik
Maldan behe, euskal literaturaren historian poeta batek
egin duen lehen libururik onena, boteretsuena eta inportan-
teena.

Poesiaren analisisa egiten dugunean, behin eta berriz apli-
katzen ditugu irizpide sinbolistak. Eskolan literatura ikasten
dugunean normala iruditzen zaigu Antonio Machadok «*yo
voy soñando caminos de la tarde*» esatea, «*me estoy haciendo vie-
jo*» esan beharrean. Bideak bizitza adierazten duela ulertzen
dugu, eta arratsaldearen bidez bizitzaren une jakin bat seina-
latu zaigula. **Azterketa honekin gauza berbera egitera gatoz
edo, berbera ez bada, oso antzekoa, baina narratibari apli-
katuta.** Izan ere, sinboloek eman zioten hasiera poetikotasun
modernoari eta, literaturan gertatu ohi den moduan, poesia-
ren aurkikuntzetan irekitako bide horietatik edan zuten beste
genero guztiek. Narratibaren berritasun egarria asetzen duen
iturri nagusia poesia da, poetarik ez badago sikatu egiten dira
literaturaren korronteak.

Idazle baten estiloak bere sinboloen aukeraketa markatzen du

Autore batek estiloa daukala esaten dugunean idazketa modu
bati buruz ari gara, baina idazketa modu hori ez da idazlea-
ren erabaki inorganiko bat. **Estiloa idazlearen nortasunaren
adierazgarri elaboratua da, sakonekoa.** Horregatik izaten

dira hain diferenteak eta hain interesgarriak autoreen estiloak, lexikoaz eta joskeraz haratago doazelako, era berean direlako mundua ikusteko modu baten adierazgarri eta mundu hori adierazteko modu bat.

Normala da, beraz, autore baten karreraren errepikatzen diren paisaiak, tipologia humanoak, irudiak egotea, baita izenak ere. **Autore batek argumentu edo trama asko sor ditzakeelako, baina ez ditu nortasun asko, bat bakarra baino** –Fernando Pessoa bere heteronimoentzako egin zituen nortasun eta estilo desberdinak bide dira arau horren mugak apurtzeko adibide literariorik aipagarrienetako batzuk– eta nortasun horrek gidatuta jotzen du gehiago paisaia batzuetara edo beste batzuetara, sinbolo batzuetara edo beste batzuetara. Bernardo Atxagaren obran behin eta berriz errepikatzen da gizabakoaren bitasuna, maiz agertzen dira basurdeak, ohikoak dira desertuak eta paisaia izoztuak. Alfred Hitchcocken pelikuletan ohikoak diren moduan pertsonaia sadikoak, gizon emozionalki kastratuak, edo emozioak adierazten dituzten saturazio kromatikoak.

Ez da erraza idazle baten estiloa definitzea baina Harkaitz Canok berea daukala ukalezina da. Modu askotara definitu daiteke, baina nekez Igor Estankona poeta eta literatura kritikoak baino hobeto. *Neguko zirkuaren* iruzkina egin zuenean, Canoren narrazioek beti zer edo zer berdina dakartela esan zuen, «halako artegatasun triste bat, insomnio errenditu bat, eta giza nortasunaren eitea bilatzeko obsesioaren manupean egindako narratiba guztiz osterantzeko bat, Euskal Herrian bakarra». Guztiz definizio ederra, zinez. Estiloa dauka Canok, bakarra, berea.

Eta estilo horren erakusgarri dira liburu honetan zein bere beste batzuetan ageri diren irudi errepikatuak, sinbolo poetiko boteretsuak. *Neguko zirkuan* itoaldiak ikusiko ditugu, ogiaz arituko gara, treni buruz hitz egingo dugu, ikusiko ditugu eskularru hutsak, jaka hutsak, alkandora hutsak eta zirkua,

behin eta berriz, **zirkua**. Sinbolo horien genealogia bere aurreko liburuetan hasten da: *Telefono kaiolatuaren* (1997) azken ipuinak *Neguko zirkua*ren hitzaurre gisa balio dezake eta *Izozteko adina* (2013) nobela laburra, berriz, bere epilogoia izan daiteke. Biak aipatuko ditugu analisisian zehar, besteren bat ere bai. Baina aztertuko duguna *Neguko zirkua* da, Harkaitz Canok bere ipuin libururik ederrenean eman zigun neguko zirku magikoa, bere idazkeraren fase bati bukaera eman ziona.

Fase oparo baten azken lana eta gailurra

*Neguko zirkua*k garrantzi berezia du Harkaitz Canoren literaturan. Begiratu besterik ez dago ze leku betetzen duen bere karreran. **1994an *Kea behelaino*pean bezala poema liburu argitaratu zuenetik 2005an *Neguko zirkua* kaleratu zuen arte, hamaika urte pasatu ziren eta hamaika liburu eman zituen argitara.** Tarte horretan era guztietako liburuak egin zituen, poema liburuak, era guztietako narrazio laburrak eta eleberriak. Hasieratik erakutsi zituen estilo elegantea eta irudimen bizia, baina liburuz liburuko garapenean nabaritu daiteke haren narratiba indarra hartzen joan zela. Idazleak egingean ikasten du bere ofizioa, eta Canoren kasuan halaxe izan da: *Radiobiografiak* (1995) liburukian pertsonaiak landu zituen, beste ezeren gainetik; *Bizkarrean tatuaturiko mapak* (1998) izenekoan, berriz, paisaiak. Ikasten ari zen, ogibideak exijitzen dituen lanabesak fintzen, zorrozten, hobetzen. **Abiadura handian zihoan: hamaika urte, hamaika liburu, nahiko kopuru harrigarria da.**

Neguko zirkua bukatu zenean, ostera, zerbait gertatu zen, abiadura aldaketa ikusgarri bat. 2006an haurrentzako liburu bat egin zuen, Antton Olariagarekin, *Lesterren logika* izenekoan. Hurrengo urtean, ipuin bat besterik ez, *Hipotesiak gordinkeriaz*, *Argia* aldizkariarentzat. Saiakera labur bat hurrengoan,

Zinema eta literatura. 2005ean *Neguko zirkua* argitaratu zenean hamaika liburu zituen argitaratuta. 2011an *Twist* argitaratu zenean, sei urte ziren *Neguko zirkua* eman zuenetik eta tarte horretan ipuin bat, haur liburu bat eta saiakera bat argitaratu zituen, hiru liburu baino ez.

Gure ustez **abiadura aldaketa horrek fase aldaketa bat adierazten du**. Karrera baten bi parte banatzen ditu; eta elementu komunak dituzten arren, nabarmenak dira fase baten eta bestearen arteko desberdintasunak. Lehenbizikoan, 1994tik 2005era, poemek eta ipuin laburrek leku handia dute, irudimena nagusitzen da, literatura fantastikoaren bideak lantzen dira. Bigarren fasearekin datoz *Twist* eta *Fakirraren ahotsa* (2018), Canoren eleberri luzeenak eta maila handi batean, konplikatuena ere bai, besteak beste, euskal gatazkaren gai korapilotsuari heltzen diotelako eta benetan existitu ziren pertsonen bizitzak abiapuntu bezala hartzen dituztelako (Lasa eta Zabala lehenean, Imanol Larzabal bigarrenean). Halako zailtasunari ekiteko egin behar izan zuen lan eskerga laburbiltzen du *Neguko zirkua*. **Prestakuntza lanak hemen bukatzen direla esan dezakegu. Fase fantastikoaren bidaian ikasitako guztia hemen laburbiltzen da, hemen konfirmatzen da eta hemen iragartzen da aro errealistaren hasiera ere, gure analisiaren ikusiko dugun moduan.**

Aldaketa baten une gorenean eta aldaketa horren gailurrean zegoen Harkaitz Cano *Neguko zirkua* idatzi zuenean. Menderatuak zituen idazlearen lanabesak, bazekien eskenatokiak, pertsonaiak eta giroak sortzen. Kontakizun literarioaren denborari eta espazioari, ikuspuntuari eta narratzaileari lotutako alderdi teknikoak ondo ezagutzen zituen, urteak zeramatzan era guztietako istorioak era guztietara kontaktzen, bazekien argumentua eraikitzen eta irakurleei eman beharreko informazioa dosifikatzen eta errebelatzen, idazle batek kontakizun sinesgarriak eta interesgarriak eraikitzeko behar dituen lanabes nagusiak menderatzen zituen eta trebetasunez erabil

zitzakeen narrazio luze zein laburretan, narrazio errealista zein sobrenaturalistetan. Horrez gain eta horrekin batera, bazeukan leku bat euskal literaturan. Zuzenbide ikasketak egiten ari zenean argitaratu zituen bere lehen poemak; hemeretzi urte zituen, oso gaztea zen. *Neguko zirkuak* argitaratu zuenean hogeita hamar urteko idazlea zen, ogibidea ezagutzen zuen, *Belarraren ahoa* (2004) eleberri laburrarekin Euskadi sari bat lortu berri zuen eta bere ibilbide oparoari esker bazeukan leku bat euskal literaturan, eztabaida ezina. Fase aldaketa ez ezik, liburu honek fase baten gailurra adierazten du, erakustaldi ikusgarria da eta ibilbide sinboliko baten punturik garaiena.

Liburu inportante bat kritikaren ustez, liburu intrigante bat

Neguko zirkuak komunikabideen aurrean aurkeztu zuten egunean Harkaitz Canok ondoan zeukan Jon Alonso nafarra, gure idazle onenatariko bat. Alonsorenak dira *Zintzoen saldoan eta Hiri hondakin solidoak*, nobela beltzaren alorrean egin diren euskarazko nobela biribilenetakoak, *Euskal karma* komedia deskatxarrantea, *Camembert helburu* saiakera eta nobela arteko hibridoa, eta *Hodei berdeak*, mende hasiera honek gure eleberrigintzari eman dion obra garaienetakoa. «Liburu garrantzizko baten aurkezpena egitea egokitu zaidala kontziente naiz» esan zuen Alonsok aurkezpen hartan. «*Neguko zirkuak* erreferentziazkoa izango den liburua da, bere garaian Sarrionandiaren *Narrazioak* izan zen bezainbeste, **literaturtasunaren eta euskal prosa literarioaren bilakabidea markatzen duelako**».

Hasieran esan dugun moduan, ados gaude guztiz Alonsok Sarrionandia eta Canoren maisutasunari buruz dioenarekin. Ez gara bakarrak. *El País* egunkarian, Jon Kortazar Literatura katedradunak *Neguko zirkuak* eragiten duen «zirrara berezia» deskribatu zuen eta liburu aipagarria zela adierazi zuen,

«idazlearen eta euskal ipuingintzaren pauso handia». *Garan*, Aritz Galarragaren iruzkinak Harkaitz Canoren liburu onena izan zitekeela zioen, Cano eraberritu baten aurrean geundela, «aurrekoari bizkar eman gabe aurrera egiten duena».

Narrazio batzuen «**goren gradua eta maisutasuna**» aipatu zuen Ibon Egañak bere *Berria* egunkariko kritikan, **lirikotasun berezi bat**, poesia eta narratibaren arteko banaketa lerroa difuminatzen zuen poetikotasun bat. Egañarekin ados gaude: **Canoren prosak lirikatik hartzen du erritmoaren musikaltasun hordigarria, eta leku beretik datorkio irudiak poetikoki erabiltzeko gaitasuna**. Generoen artean jartzen ditugun harresi zurrunetan, Canok beti ikusi ditu mintza porotsuak. *Telefono kaiolatuan*, ipuinak, poesia eta beste idazle batzuen poema itzuliak nahasi zituen. *Twist* nobela errealista da, baina lehenbiziko kapituluan, Soto eta Zeberioaren gorpuzkien bidez ematen da kontakizunaren parte bat, sobrenaturalismoaren bidetik, narrazio molde ia lisergiko batean. Emaitzak dardara eragiten dio irakurleari, ia ulertzen ez duen moduren batean, orrialde estonagarriak dira, hasiera kolosala, euskarazko eleberrri hasiera gogoangarrietako bat.

«Literaturaren gaineko literatura» eta «sorkuntzaren gaineko gogoeta» ikusi zituen Egañak *Neguko zirkuan*, eta horixe da gure analisiak zabaldu eta garatu nahi duen ideia nagusia, **sorkuntza bera dela liburu honen gai nagusia**. Momentu horretara arte, Harkaitz Canok literaturan egindako bidean aurkitutako oztopoak seinalatzen ditu, eta oztopo horiek gainditzeko konponbideak ematen dizkio bere buruari. Nola bilakatzen da norbait idazle? Nola lortzen du diziplina artistiko horretan bizirik eta lanean mantentzeko moduko abilezia? Literaturatik bizitzeko moduko idazlea izan nahi duenak liburuak saldu behar ditu eta jakin behar du eremu profesional batean mugitzen. Nola izan idazle saldua idazle *saldua* izan gabe? Zer-nolako harremanak izan behar dira beste idazle batzuekin, argitaletxeekin, editoreekin, komunikabideekin? Liburuak argitaratzen

hasi zenetik *Neguko zirkua* bukatzeko behar izan zuen hamar-kada luzean, Harkaitz Canok, literaturatik bizi nahi duen beste edozein idazle hasiberrik bezala, ikasi egin behar izan zuen galdera horiei aurre egiten. Konponbide egokiak aurkitu zituela ebidentea da, gure idazle profesional bakanetako bat da eta gure hoberenetakoa. **Soluzio horiek *Neguko zirkuan* ageri direla uste dugu, eta horiek azalaraztea da gure azterketaren helburua.** Idazle bat ikusiko dugu, mundu sinbolikoen atzean gordeta, bere galderetan barrena eta bere erantzunen bila.

Arestian esan dugun moduan, bere garaian kritikariek modu batera edo bestera seinالاتu zuten gure analisiaren oinarrian dagoen sinbolismoaren boterea. «**Narrazio hauetan gauzak ez baitaude lehen bezain agerian, letra artean gordeak baizik**», esan zuen Beñat Sarasolak bere iruzkinean, Eremulauak webgunean. Canoren estilo adierazkorra eta dotorea deskribatu zuen Sarasolak, eta guretzat inportantea den detaille bat eman zuen, «**elkarrizketak paragrafo artean txertaturik**» daudela, gidoirik edo marrarik gabe. Txalapartaren *Mecanografiak* (2019) bilduman gidoiarekin jasotzen dira *Neguko zirkuan* biltzen diren narrazioetako batzuk, horien artean *Jon Miranderen balada Jim Morrisonen omenez* izenekoa, liburu honetako seigarrena. Gidoiak zituen lehen aldiz argitaratu zenean, Gasteizeko udalak Ignacio Aldecoa ipuin sariketan lehen saria eman zionean. *Neguko zirkuan*, ordea, gidoirik gabe jarri zituen Canok elkarrizketa guztiak eta aukeraketa guztiz pertinetan izan zen: modu horretan **pertsonaien ahotsa eta narratzailearena nahastu egiten baitira, eta areagotu egiten da pertsona bakar baten baitan egotearen sentsazioa, ipuinen arteko jarraikortasuna, urpeko korronteetatik garamatzan bidaia bakar baten indarra**, kritikaren iruzkinetan modu batean edo bestean seinالاتzen dena.

El Diario Vasco egunkarian, adibidez, zera zioen Felipe Juaristik, liburu honetako hitzei buruz: «Misteriotsu eta ezkutukoa den zerbait esaten digute, itxuraren etxeak zerbait

daukala gordea, hitzez adieraz ezin daitekeen zerbait». Baudelaire aipatu dugunean adierazi dugu ez dugula guk esaten berak esan ez zuen ezer. Juaristik modu ederrean laburtu zuen pentsamendu hori: «**Hitzen atzean mundu bat dagoela, handia eta zoragarria**». Mundu handi eta zoragarri horretan murgiltzea da azterketa honen asmoa, eta, Harkaitz Canok berak liburuaren aurkezpenean esan zuen moduan, «orbita berean» dauden ipuin hauen grabitazio indarrak azalaraztea.

Indar horiek kontrajarriak direla ikusiko dugu, **bizitzak alde batetik egiten du tira, heriotzak bestetik**. Tituluak berak adierazten du psikoanalisiaren oinarrian dagoen *Eros-Thanatos* pultsio freudiar hori. Neguko paisaia desolatueta barrena joango gara, ikusiko ditugu heriotza eta mina, zapalkuntza eta samina, frustrazioa eta dolorea; baina, tarteka, mirari batean bezala, zirkua iluminatuko da eta akrobazia magiko batek bizitzaren poza sentiaraziko digu. *Aizu!* aldizkarian halaxe seinalatu zuen, oso modu zorrotzean, M. Egimendik, «Harkaitz Canoren liburu honek hemeretzi ipuin biltzen ditu, zein baino zein... nola esan? Tristeago, tragikoago, irrigarriago? Izan ere, kontrajarriak iruditu arren, sentimendu horiek guztiak: samintasuna, ezinegona, samurtasuna... eragiten ditu, ez liburuak, ipuin bakoitzak baizik». Beste hau ere esan zuen Egimendik, gure analisirako garrantzitsua: «**Intriga nobela batek bezala harrapatzen du irakurlea** liburu honek, ipuin baten irakurketak uzten duen **barne giro tragiko-magiko edo poetikoari eusteko gogoia pizten baitio**. Eta irakurtzen jarraitzeko gogoia ematen du, liburuak ezin utzita, hurrengoak zer ote dakarren jakiteko irrikak irabazten duelako».

Ezin da hobeto esan. Liburu honek irrika sortzen du, ipuin liburu gutxiak bezala. Norberak jakin egin nahi du zer gertatuko den hurrengo kontakizunean, nora eta norekin eramango gaituen. Ipuin liburu bikain asko daude, baina gutxitan sentitzen du irakurleak *gero zer pasatuko den* jakiteko gogoia, badakigulako «gero» ez dela ezer pasatuko, ipuina bukatu

dela eta hurrengoan beste pertsonaia batzuk datozela, beste kontakizun bat. *Neguko zirkua* desberdin egiten duena ipuin batetik bestera sentitzen dugun irrika hori da, nobela batean bezala aurrera jarraitzeko eskatzen digun intriga hori. Ipuinak etorrian datoz eta indar magnetiko batek garamatza batetik bestera, jakin nahi dugu zer gertatuko den. **Badirudi abentura batean goazela, thriller batean gaudela.** Eta *thriller* hori da jarraian irakurriko duguna. Protagonista bakar bat imajinatuko dugu, bidaiari, idazle izateko ofizioan topatzen diren oztopoak konpontzeko ahaleginean, ogibidearen klabeen bila bidaiatzen eta harekin egingo dugu bidaiari hori, ea nora ailegatzen garen.